



EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

HEZKUNTZA ETA KULTURA BATZORDEA COMISIÓN DE EDUCACIÓN Y CULTURA

VIII. legegintzaldia / VIII legislatura

2007.09.26/ 26.09.2007

BATZORDEAREN BILKUREN ALDIZKARIA

DIARIO DE COMISIONES

Gaia-Asunto: Comparecencia del consejero de Educación, Universidades e Investigación, a petición de la comisión, de conformidad con la solicitud formulada por D.º Itziar Basterrika Unanue, parlamentaria del grupo Ezker Abertzalea, para que informe sobre las declaraciones efectuadas recientemente en la prensa en torno al currículum vasco y a los decretos para su implantación.

SUMARIO

	Página
- Se abre la sesión.	3
- Primer punto del orden del día: "Comparecencia del consejero de Educación, Universidades e Investigación, a petición de la comisión, de conformidad con la solicitud formulada por D.ª Itziar Basterrika Unanue, parlamentaria del grupo Ezker Abertzalea, para que informe sobre las declaraciones efectuadas recientemente en la prensa en torno al currículum vasco y a los decretos para su implantación".	3
- Segundo punto del orden del día: "Ruegos y preguntas".	22
- Se levanta la sesión.	22

Se abre la sesión a las once horas y treinta minutos.

La **PRESIDENTA** (Lasa Arteaga): Hasiera emango diogu Hizkuntza eta Kultura batzorde honi.

Lehenengo puntuarekin hasi aurretik, aurrekoan ere egin nuen bezala, baina agerraldia denez, esango nuke ohikoa izaten dugun moduan talde guztiek lehenengo txandan hamar minuturen bueltan izango dutela gehienera jota, eta bigarren goan bost bat minutuko epea izango dutela. Eta gainera gainera kontutan eduki behar dugu lan-jardun honek, nahiz eta batzorde hau bukatu, jarraitu egingo duela, ze gero Ostalaritza Eskolaren egoitzan, Gamarran, hitzordua daukagu, eta horra ere iritsi behar dugu. Ordu biak laurden gutxian jartzen zuen egutegian, eta beraz, eskertuko nizueke harira joango bazinete; bakoitzak bere kezka agertu behar ditu, noski, baina pixka bat hori ere kontutan izan dezazuen eskatuko nizueke.

Besterik gabe, ongi etorria eman bai sailburuari eta bai bere lan-taldeari, Juanjo Agirrezabala zein Pedro Gotxoa jaunei.

Eta besterik gabe, lehenengo puntuari ekingo diogu: "Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailbuaren agerraldia...".

El Sr. **ABASCAL CONDE**: Perdón, una cuestión previa. Es en relación con el orden del día de esta comisión, que inicialmente tenía otra comparecencia más del consejero, que ha sido anulada del orden del día, a propuesta de este grupo y del Grupo Socialista. Y la verdad es que nos habría gustado saber por qué se ha pospuesto. Suponemos que es por una cuestión de horario, pero realmente también podía haber comenzado antes esta comisión. Y lo cierto es que nosotros teníamos mucho interés en que el consejero pudiera comparecer para explicar el Plan de Paz y Convivencia antes del pleno del día 5. Ahora hemos observado que ni siquiera entra para la comisión de la semana que viene, sino que está a la cola. Por lo tanto, no vamos a poder ver cumplido nuestro deseo de escuchar al consejero antes del día 5 en el pleno de víctimas. Y quería poder escuchar una explicación convincente sobre la posposición de este punto sin consultar a los grupos que habían solicitado la comparecencia del consejero.

La **PRESIDENTA**: Esplikazio konbintzentea baino gehiago, esango dut zer den. Ez dut anulatu. Bakarririk atzeratu egin dut, agenda-kontu bat izan delako. Gainera, Oyarzabal jaunari esan nion –berak esan zidan berak ezin zuela egon, zu egongo zinela–, esan nion ezin nuela aurreratu, gehiago ezin nuelako egon, fisikoki imposible zaidalako gaur bi lekutan ordu berdinean egotea. Eta berdina esan nien... Ez da anulatu, atzeratu egin da. Gainera, konparetzentzia hau 20rako zegoen eskatuta. Atzeratzea eskatu ziztaion. Eta berriro ere bueltaka ibili beharrean, mantentzea erabaki nuen, hau eta hurrengoa beranduago jorratzea. Ez dago beste arrazoirik. Pentsatzen dut denak gizakiak garenez horrelakoak gertatzen direla. Eta hori da pasa dena. Eta urriaren 19an sartzen da, bertan edukiko dugu aukera. Baina ez da ezertxo ere anulatu, hemen eztabaida emango da urriaren 19an.

Besterik gabe, beraz, hasiera emango diogu lehenengo puntuari: "Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren agerraldia, Ezker Abertzalea taldeko Itxar Basterrika Unanue legebiltzarkideak egindako eskaria aintzat hartu eta batzordeak eskatuta, informazioa eskaintzeko euskal curriculumaren inguruan eta ezarri behar diren dekretuen inguruan azken egunetan prentsan egindako adierazpenei buruz".

Beraz, Basterrika anderea, zurea da hitza. Hamar minuturen bueltan mugatuko bazina, eskertuko nizuke.

La Sra. **BASTERRIKA UNANUE**: Saiatuko naiz ahal den laburrena izaten eta gauzak ahal den motzena eta bideratuena planteatzen. Onintzak esan duen bezala, nire eskaeran eskatzen nuen zure



agerraldia, ba, dekretuaren inguruan prentsan atera ziren deklarazio batzuen ostean nolabaiteko desinformazio baten inguruan sortu zitzaigun egonezina pixka bat azaltzeko.

Utziko didazu bi hitzetan sarrera txiki bat egiten. Nik dakidanez, 2003. urtean hiru eragileren eskutik –Ikastola Konfederakuntza, Sortzen-Ikasbatuaz eta Udalbiltza– hitzarmen edo itun bat hitzartu zen, non bideratzen ziren hezkuntza-komunitateko elementu gisa curriculum aurrera eramateko bost atal.

Momentuz, dakidanez, uste dut hirugarren atalean gaudela. Uste dut zela aukera ematea beste eragileen aldetik ekarpenak egiteko. Badakit eragile dezentek egin dituztela ekarpenak, curriculum horretara beraien erabakiak edo iritziak plazaratu ahal izateko. Eta uste dut oinarrizko dokumentu bat ere sortu zela, ez banago gaizki.

Laugarrengo atala zen, nolabait, oinarrizko dokumentu horretan sortzen ziren hitzartutako planteamenduak hezkuntza-komunitatera bideratuko zirela, pixka bat beraien jarrerak edo oniritzia jaso ahal izateko. Eta ez banago gaizki, bai Sortzenek eta bai Ikastolen Konfederakuntzak planteratzen zuten ikasturte honetan bideratzea oinarrizko curriculum aurrerakuntza duguna, kompetentzia garatzeko arloak, hau da, guk modu batean helburu gisa ulertzen ditugunak, eta beste bat zen curriculum espezifikoa, hau da, euskal curriculum aurrerakuntza, ezaugarri bezala euskaldun konfederakuntza gaituen arloa, oraindik bukatu gabe dagoen nire ustez behintzat, nire informazioaren baitan.

Egia da 2006-2007an Gobernuak plazaratu zuenean dekretuaren zirriborroa prentsan atera zirela eragile batzuk kezkatuta, euskal curriculum aurrerakuntza konfederakuntza hori bat ez zetozeela Gobernuak egiten zuen planteamenduari. Eta hortik pixka bat gaurko konparetzentziaren eskakizuna. Beraiek esaten dute euskal curriculum aurrerakuntza oraindik bukatu gabe dagoela, ikasturte honetan bukatuko dutela, eta Gobernuak plazaratzen digu dekretu bat, non euskal curriculum aurrerakuntza hori amaitutzat jotzen duen.

Eta nire zalantzak hortik datoz, hau da, ustez beraiek esaten dute % 55 hori, nolabait, LOEk ezartzen duena eta Espainiako Gobernutik datorrena, aplikatzerik bazegoela, eta legez horrela da, baina % 45, Gobernuaren eskuetan geratzen zena eta nolabait gure ezaugarriak eta gure identitate-zeinuak aldarrikatzeko gunea genuen horretan, beraiek nolabaiteko salaketa edo..., esaten da pixka bat ausardia-faltaz jolastu duela Gobernuak gure identitate-zeinu horiek ez direlako oso-oso garatuta konfederakuntza.

Bai dagoela aldaketa bat curriculum dekretu horretan, non euskal herriez hitz egiten denean, oro har aipatzen diren zazpi probintziak, guk Euskal Herria konfederakuntza dugun hori, baina titulazio edo definizio batean garatzen dela eta gero edukietara edo sakontasunera sartzeko garenan Euskal Autonomia Erkidegoko hiru probintzietara mugatzen garelako, eta bai Nafarroa eta bai Iparraldean ikusten ditugun probintzi horiek ez direlako hain argi garatzen. Esaten dute badagoela beste aspektu batzuk ere jorratu direnak eta aurreratu direnak, baina desitxuratu-bide bat ere baduela.

Eta nire zalantza da printzipioz, teoriarik, eragile hauek, haisera batetik lanean egondu direnak, esaten badute ez dagoela amaituta euskal curriculum aurrerakuntza horren definizioa, nola Gobernuak bai deitzen dion euskal curriculum aurrerakuntza, eta ea hor ez dagoen kontraesan bat. Eta bi gauza desberdin baldin badira, zergatik ez bakoitzari bere gauzez nolabait identifikatu.

Eta abiapuntu bezala ere bai azpimarratu nahi nuke zera, hasiera batean, behintzat nik irakurri nituen dokumentu batzuetan, bai ikusten zen aspaldi honetan talde batek hezkuntza mundura ausardia edo indarra eraman zuela euskal curriculum aurrerakuntza bat egiteko. Eta Udalbiltzaz ari naiz. Hau da, printzipio batean planteamendu honekin hasi zirenean, Udalbiltzak bazituen oportunitate batzuk, non hezkuntza mundutik aparte beste eragile dezentekin ere lan egin nahi zuen oportunitate desberdin asko barruan kokatzeko. Eta iruditu zait denbora batetik hona oportunitate horiek bidean geratu direlako batean baino gehiagotan.

Argi dago hezkuntza eta kultura kokatu behar dela curriculum aurrerakuntzean, baina horretaz aparte beste gauza batzuk ere kontutan eduki behar dira. Genero-ikuspuntua ere kontutan eduki behar da, eta



dekretu honetan uste dut genero maskulinoa asko erabiltzen dela. Ez dut zehatz-mehatz dekretua ikusi, baina irakurketa bat baino gehiago egin diot eta egia esan pixka bat mina egiten dit. Azkeneko bolada honetan aldarrikatzen dugu leku guztietan emakumezkoak eta gizonezkoak parekotasuna eduki behar dugula, eta dekretu hau ez da horren adierazgarri polita; eredutzat, esango nuke, kaskar samarra da.

Bai ere kezkatzen nau beste aspektu batek, ez hezkuntzan bakarrik, baizik eta lanean nagoela Legebiltzar honetan ere behin eta berriz leku guztietan aldarrikatzen den beste gauza batek. Ni, nire abiapuntua izanik beti euskaraz hitz egitea, nire ama-hizkuntza kontsideratzen dudalako, egia esan aspertu samarra nago instituzio publiko batetikahelarazten didatelako dokumentu pilo bat erdaraz. Eta dokumentu honek ere, uste dut sorreraz ama-hizkuntza edo abiapuntuko hizkuntza erdara eduki duela. Orduan, guk hemen aldarrikatu ditugunak, bai zuk eta bai nik, B2 eredu hori helburutzat jotzeko, urruti dauzkagu. Badira horrelako kontraesan batzuk nik argi utzi nahiko nituzkeenak mahai gainean. Batez ere kontuan edukiaz eragile asko lanean daudela, eta uste dut, gainera, lan txukun bat egiten ari direla eta batzuk ja egin dituzte beren aportazioak, bere garaian dekretuan txertatu ziren ikuspuntu eta aportazio batzuk. Baina bai ere aldarrikatu zuten eta utzi zuten argi ez zirela euskal curriculumaren inguruko aportazioak, baizik eta Espainitik zetorren dekretuaren ingurukoak, baina hona etorri izan ziren. Nik gauza batzuk argitu nahiko nituzke.

Eta hau dena pixka bat argi utzitaz, nik bai egingo nituzke abiapuntu bezala hiru galdera. Hau da, argi ikusita sektoreak edo eragileek egin duten aldarrikapena, euskal curriculuma ez dagoela erabat bukatuta, eta Gobernuak aurkezten digun curriculum hori, zergatik bakoitzari ez deitu bere hitzez, eta ez baldin bada euskal curriculum, ez deitu, Euskal Autonomia Erkidegoko jendea nahastu ez dezagun.

Beste bat ere esango nuke. Dekretuak, esan dut lehenago, izan duen aldaketa bakar handienetakoa da Euskal Herrian definizioaren inguruan. Baina definiziotik haratago, batzuek esaten dute ezer gutxi aurreratu dugula. Orduan, nola garatzen dira kontzeptu hauek edukietan, jakin nahiko nuke. Ikusi dut ekarri diguzula hemen txosten bat, baina Euskal Herriaren edukietan, eta ez Erkidego Autonomikoarenetan, ea Espainiatik zati bat aparte, zerbait haratago joaten garen.

Eta gero bukatzeko esango dizut, ez dakit, agian azkeneko egun hauetan entzun den hitz bat erabiliaz, eta da desobediencia, hori garatuz eta erabiliz agian momentu honetan etsenplu polit bat eman zitekeen Gobernuaren aldetik, Espainiatik inposatu nahi diguten dekretu horretatik urrunduz, gure nortasuna eta gure euskal zeinuak adierazteko. Hori gehiago garatzeko aukera bat genuen hemen.

La **PRESIDENTA**: Erantzuteko txandan, edo zure agerraldia egiteko, zurea duzu hitza, Campos jauna.

La Sra. **CELAÁ DIÉGUEZ**: Señora presidenta, es por una cuestión de procedimiento, no sé si puedo decirle algo. Observo con curiosidad y con sorpresa que el consejero va a proceder a presentar en este momento el curriculum vasco para la educación básica a propósito de una serie de preguntas formuladas por la representante de las Tierras Vascas. No me parece un procedimiento adecuado, porque no es una petición de comparecencia del Gobierno, sino sencillamente una petición de respuesta a determinadas preguntas formuladas por la representante de EHAK. Por lo tanto, yo considero que si el Gobierno pretende venir a presentar su curriculum, tiene que ser una petición de eso o bien de la comisión o bien del propio Gobierno, por lo que reclamo que se dé respuesta a esas preguntas.

La **PRESIDENTA**: Barkatu, Celaá anderea. Hemen agerraldian jartzen du zein den eskaera, zertara etorri behar duen sailburuak. Nik pentsatzen dut denak argi daukagula hori. Beraz, ez zait iruditzen zuri dagokizunik gogoratzea Gobernuari nola jokatu behar duen. Badaki zertara datorren, berak dokumentu bat eman digu, nik inondik ere eskertzen diodana, ze soporte bat ematen digu, baina, diodan bezala, hemen jartzen du zer dagoen eta pentsatzen dut sailburuak ederki dakiela nola



erantzun behar dion kontu honi. Hala ere, oportazioagatik eskerrik asko, eta zurea duzu hitza, sailburu jauna.

La Sra. **CELAÁ DIÉGUEZ**: Solamente una cosa. La representante de este grupo pretendió precisar exactamente cuáles iban a ser las cuestiones formuladas por el grupo proponente y no fue capaz de conocerlas. Es decir, que nosotros venimos aquí a que se le dé respuesta a la proponente, no a la presentación de este currículum, que podíamos haber pedido como tal que se trajera.

La **PRESIDENTA**: Barkatu, Celaá anderea. Mesedez, inoiz ez dugu jakiten zer erantzun-klase ematen duen Gobernuak, eta zehatz-mehatz zer esposizio egiten duen agerraldiak eskatzen duenak ere inoiz ez dugu jakiten. Hau hemen ikusiko dugu, eta, faborez, umildade pixka bat eskatzen dizut, ze pentsatzen dut Gobernuak ederki dakiela nola erantzun behar duen egiten zaion galderari eta nola jokatu behar duen Legebiltzar honen aurrean. Eta gero, zure txandan zuk ere galderak egin ditzakezu, noski. Baina bai eskatuko nizuke konfiantza-boto bat ematea Gobernuari, badakielako zertara datorren. Besterik gabe, sailburu jauna, zeurea da hitza.

El **CONSEJERO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN** (Campos Granados): Egia esateko, Basterrika anderea, nik eskertzen dizut, eta horrela ere ez dakit lasaitasun apur bat ematen diodan Celaá andereari... Zuen idatzizko eskakizuna ikusi nuenean, adierazpen batzuk aipatzen ziren. Eta nik hona ekarri dudana da, hain zuzen ere, egin nituen deklarazio horiek tartekatuta, medioei eman nizkielako –hemen medio batzuk daude–, eta iruditzen zitzaidan horren inguruan galdetuko zenidala. Eta horren inguruan, medioetatik jasota zenutenez, nire bertsioa ematekotan nengoen. Eta besterik ez, horrela planteatu dugu. Gauza guzti hauek medioetan esan ditut, batean edo bestean, eta hemen daude ordenatuta. Erreferentzia bat dago hemen hartutako konpromisoei buruz, derrigorrezkoa iruditzen zitzaidalako Hezkuntza Batzordean egonda. Eta ea hainbat erantzun ematen dizuedan.

Batetik, nik adierazi nahiko nuke, medioetako nire adierazpenak ulertzeko, zer-nolako konpromisoak hartu nituen hemen bai lehenengo agerraldian eta baita ere 2006ko maiatzean euskal curriculumaren inguruan hemen egin nuen agerraldian. Batean konprometitzen ginen gure curriculum ofiziala egitera derrigorrezko eskolaldirako, eta hori eragile guztiekin egingo genuela, saiatuko ginela eragile guztiekin egiten, ordurarako prestatuta zeuden materialak aberastu nahian. Eta bigarren agerraldian agindu nuen, hain zuzen ere, guk Gobernu bezala dekretua ezartzea baino nahiago genuela denen artean, hezkuntzako eragile nagusien artean, curriculum bat ahalik eta adostasunik gehienarekin lantzea. Eta bi agindu hauek edo bi konpromiso hauek Hezkuntza eta Kultura Batzorde honetan eginda, betetzen saiatu gara orain arte.

Nik hor zehaztapen txiki bat egin nahiko nizuke. Oker ez banago, 2006ko maiatzeko agerraldi honetan errepaso bat egin nuen zer-nolako lanak zeuden eginda euskal curriculumaren inguruan Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren parte-hartzearekin. Eta hor, oker ez banago, itun guztiak izan dira Ikastolen Konfederazioarekin, Kristau Eskolarekin edo Sortzen-Ikasbatuaz-ekin, eta gero azkena sare publikoko hezkuntza-eragile nagusiekin, EIGE, BIE eta Sarean-ekin.

Hori esanda, zer esan nahi du curriculumak? Curriculumak bidea esan nahi du, besterik ez. Eta guk azpimarratu nahi izan duguna da bidea baino garrantzitsuagoa bidegilea dela, bide hori jorratzen edo ibiltzen duena dela. Eta planteatzen dugun curriculumak –ze galdetzen didazu amaituta dagoen, ez dagoen amaituta– da proposamen orientatzaile bat, norabide bat, pertsona bakoitzak bere bide akademikoa eta heziketarakoa egin dezan. Euskaraz esaten dugu “bidea ebaki”, “bidea ireki”, “bidea zabaldu”. Eta horixe bera da egiten duguna curriculum honekin, jakinda pertsona bakoitzak izan nahi duena izateko eskubidea duela eta horretarako hainbat gauza ikasi behar dituela, bai eskolan, baina baita ere etxean, jolasean, lanean. Garrantzia ematen diogu curriculumean, nola ez, eskolari; eskolak, gainera gure esparrua izanda, garrantzi handi bat dauka pertsona nor izateko prozesu horretan. Baina eskola ezin kontsideratu daiteke aparte gizarteak dituen beste hainbat erakundetatik, eta erakunde horietan ere pertsona osatu eta hezi egiten dela azpimarratu nahiko



nuke, esanez edo ikusiz pertsona ezin dela zatitu, pertsona bat bera dela. Hortik abiatu gara, pertsonaren gertatuzko egoeretatik abiatuta planteatzen dugu curriculumua.

Eta hemen beste agerraldietan ikuspegi politiko desberdinak baldin badaude, hemen ia denon elkarrekin bizi nahi dugu herri baten berezko seme-alaba modura eta gure nortasunak elkarrekin garatuz. Hau erronka zaila edo sekulako erronka dugu, eta politikoki kudeatzeko ere bai. Eta hor ekarri dizuet Pedro Migel Etxeniketik Hezkuntza eta Kultura sailburua zelarik esandako hitz batzuk, ze horiek nahiko ondo argitzen dute curriculumaren inguruan egindako lana. Eta berak esaten zuen: "Herri-erakunde demokratikoen eginkizuna ez da herritarrak nolakoak izan behar duten erabakitzea, baizik eta herritarrei izan nahi dutena izateko herri-baldintza egokiak bideratzea". Eta horixe da, hain zuzen ere, izan dugun zioa, izan dugun arrazoia hezkuntzako talde askorekin edo eragile nagusiekin aritzeko. Eta proposamen, asmo, gogo, proiektu ezberdinak bilduz, denon artean –"denon artean" hau errepikatuko dut behin eta berriro–, denon artean adostu dugu curriculum-eredu bat gure ikastetxe guztiei eskaintzeko. Hori zen edo hori da jarrera etiko eta demokratiko batek eskatzen diguna agintarioi, eta horixe egiten saiatu gara orain arte.

Nire adierazpenetan, adierazpenez galdetzen zenidanez, esan dut honekin hirugarren iraultza hasten dugula hezkuntza-sisteman. Lehenengo iraultza hezkuntzaren orokortzea baldin bazen eta bigarrena eskola denontzako eskola kontsideratzea inklusibitatearen ikuspuntutik, curriculum honekin hirugarren iraultzara abiatzen gara. Zergatik? Ezagutzetatik kompetentzietara pasatzen gara; edukinak garrantzitsuak izanda, orain kezkatu behar gaituena da ikasleek jakin behar dutela izaten edo egiten. Bigarrenik, irakastetik, ikasten ikastera edo ikasten laguntzera pasatu behar dugu sistema modura. Eta hirugarrenik, ikaslea bihurtzen dugu ardatz eta baita ere sistema osoaren helburua. Curriculum berriarekin egiten duguna edo egin nahi duguna da, hain zuzen ere, 2010erako *Education and Training* izenpean (hezkuntza eta trebakuntza), 2010erako leloaren pean, Europako Batzordeak jarritako hainbat helburu lortu. Hemen porrot-tasaren inguruan edo eskola-uztearen inguruakoak jarri ditut, bi jarri ditut, baina beste adierazle eta helburuak ere kontuan izan ditugu. Gure porrot tasa eta eskola-uzte tasa, gure inguruko herrialdeetako baina hobea izanik, oraindik ez da iristen Europak jartzen dituen helburuetara. Egin duguna izan da planteatu oinarritzko hezkuntza osorako euskal curriculumua, alegia, helburuak lortu behar direla ikasleak oinarritzko hezkuntzaren bukaerara iristen direnean. Eta proposamen honetan kontuan izan ditugu ekarpen guztiak.

Nik egin nizuen ibilbidea bai aurreko legealdian eta baita ere legealdi honetan, eta esan dezaket guk 2006an *Euskal Herrirako Curriculumua* izenpean jaso genuela edo eskuratu genuela sare publikotik egindako ekarpena. Abendutik martxoa bitartean egin duguna gure proposamena izan da, edo guk ekoiztu dugun proposamena, eragile guztien ekarpenak jasoz edo geureganatuz. Martxoan bildu ginen berriro eta martxotik abuztuaren bukaeraraino egon gara eragileekin, eragileek izendatutako hiru espezialistarekin eta gero eragileekin lanean gure proposamen hori aberasten eta zuzentzen. Martxoan ere eskegi genuen bertsiorekin gure webean, hainbat ekarpen izateko. Nik uste dut ordutik hona izugarri aberastu dela Jaurlaritzaren hasiera proposamen hori eta nik uste dut horren inguruan egin ziren hainbat adierazpen zaharkituta gelditu direla erabat. Nik bai azpimarratu nahiko nukeela, ez dakit konsziente izan garen edo, indarrean dagoen Lehen Hezkuntzako dekretua 1992koa dela eta indarrean dagoen Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako dekretua 1994ko dekretua dela, hori ere nahiko zaharra.

Curriculumua bai eragileei eta baita medioen aurrean aurkeztu dudanean, oinarritzko printzipio hauek aipatu ditut. Alde batetik, gaitasunen garapen integrala bildu nahi zuela. Izaera preskriptiboa utzita, ezaugarri orientatzailea zeukala. Arloek eta ikasgaiek Euskal Herriaren dimentsio zehatzak lantzen dituztela –kritika batzuk esan dizkidazu eragile batzuenak, baina ez didazu adibide bakar bat eman, non, gure curriculumua hemen ofiziala izanda, ezin daitekeen erabili Nafarroan edo Iparraldean–. Lehenago esaten genuen eskolak bakarrik ezin hezi dezakeela ikaslea, familien eta udalen papera ere azpimarratzen dugu. Eskola inklusiboa. Eta bakerako eta elkarbizitazarako ardatzak oinarritzen du baita ere gure proposamena.

Xede nagusi modura curriculumarekin egin nahi duguna da helduen bizitzari ekiteko prestatzea gure ikasleak. Bigarrenik, esaten dut euskal kulturaren elementuak baina baita ere munduko kulturaren elementuak eskuratu behar dituztela, eta lanari ekiteko prestatzen lagundu behar diela



curriculumak. Eta etengabeko trebakuntzan murgiltzeko edo etengabe ikasten jarraitu dezaten gure ikasleek, horretarako joera eman beharko lieke.

Printzipio pedagogiko batzuk ere aurkeztu ditut medioen artean, horregatik hemen ekartzen ditut. Oinarrizko gaitasunak eta gaitasun orokorrak batera ezkontzen ditu curriculum honek. Eduki-tipologietan oinarritzen dugu curriculumaren garapena eta planteatzen dira proiektu orokorrak, alegia, lortu behar diren helburuak ez dira lortu behar kurtso batean, ziklo batean, etapa batean, baizik eta bere oinarrizko hezkuntzaren bilakaeran. Ebaluazioa irakasleen eskuetan jartzen dugu eta ez irakasle bakoitzaren eskuetan, alegia, ebaluazioa egiten denean ikaslearekin egon diren irakasle guztiek eman behar dute beraien iritzia, eta guk uste dugu martxan jarritako curriculumarekin bateratu egiten dugula hezitzailea edo irakaslea dauden etapekin. Curriculum bakarra oinarrizko hezkuntza osorako; orain arte Lehen eta Bigarren Hezkuntza zena bateratzen dugu helburuen aldetik eta dena planteatzen da bukaeran lortu beharko lirakeen gaitasun gisa.

Lehenengo transparentzia ekarri nahi dizuet gogoera. Han azaltzen ziren konpetentzia batzuk eta arlo curricular batzuk. Horiek ziren lehendabiziko proposamenak, baina curriculumean garatu direnak azkenengoak izan dira. Azkenengoak zeintzuk dira? 2006ko irailean Europako Parlamentuak gomendatu zituen zortzi gaitasun europarrak izan ditugu adibide edo gidari gure curriculum egiteko. Eta hor ere, publikoki esan dudan moduan, otsailean oraindik lanean geundenez, Europar Batasuneko Batzordeak proposatu dituen indikatzaileen markoa hartu dugu –beste batzuek egin ez dutena–, Lisboako estrategiaren bilakaera neurtzekotan. Konpetentzia hauek direla eta, ikastetxeek egokitu beharko lituzkete beraien proiektu curricularrak, eta horien barruan edukinak eta ebaluaziorako irizpideak.

Sei hezkuntza-gaitasun orokor izan ditugu kontutan: bizitzen ikastea, ikasten eta pentsatzen ikastea, elkarren artean komunikatzen ikastea, elkarrekin bizitzen ikastea, pertsona gisa garatzen ikastea, eta egiten eta ekintzaile izaten ikastea.

Oinarrizko zortzi gaitasunak horrela definitu ditugu: kultura zientifikoko, teknologiako eta osasun-kulturako gaitasuna; gaitasun matematikoa; hizkuntza-gaitasuna; kultura- eta arte-gaitasuna; gizarte- eta hiritar-gaitasuna; informazioaren tratamendua eta gaitasun digitala; ikasten ikasteko gaitasuna; autonomia eta ekimen pertsonala. Honen justifikazioa da Europar Batasunak planteatu dituen konpetentziak. Azkeneko datak eman ditugu. Delors presidente ohiak UNESCOrako bere txostena egin zuenetik –hezkuntza altxor bat dela–, hortik hasten gara ja hasierako oinarrizko lau konpetentzietan. Eta orain sei konpetentzia bihurtu dira orokor eta zortzi oinarrizko.

Nire adierazpenetan esan dut curriculum honekin bai antolakuntzaren aldetik eta baita ere pedagogiaren aldetik autonomia ematen diegula ikastetxeei, bai oinarrizko hezkuntzaren bilakaeran landu ditzaketelako helburuak, baita ere ordutegiak antolatu ditzaketelako eta baita ere hainbat ordu ematen zaizkielako –konkretuki hamar ordu astero Lehen Hezkuntzako zikloetan eta hamazazpi ordu astero Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen, bigarren eta hirugarren mailan–, beraien indartu ditzaten beraien ustetan indartu beharko lirakeen edukinak, edo aukerazko beste hainbat ikasgai eman ditzaten.

Egin duguna publikoki esan nuen, medioek nik uste jaso zutela: indartu egiten ditugu zientzia eta matematikak, horiek baitira, zientzia batez ere, Pisako azterketetan hain ondo ateratzen ez direnak gure ikasleen errendimenduari edo gure sistemaren eraginkortasunari begira, nahiz eta batez bestekoa baino balorazio handiagoa atera.

Hizkuntzetako gaitasun-mailei dagokienez, medioetan adierazi nuen moduan euskara izan behar da ikasbide nagusia. Eta era orientatzailean hemen diskutitu genituen mailak planteatzen dira hizkuntzen marko berria garatu edo adostu arte edo horren legea Parlamentuan onartu arte. Hizkuntza tratamendua Europako ikuspegiarekin landu dugu: CLIL (Content and Learning Integrated Language), hau da, hizkuntzak era integratu batean ikasi daitezkeela eta hizkuntza batean aurreratzen dena beste hizkuntzetan ere aurrerapausoak izan behar direla. Eta euskararen salbuespenak direla eta, horiek bakarrik mantenduko dira kanpotik datozenentzat eta hemen kurtso bakar bat egin behar



dutenentzat. Bestela, gure apustua da beti inklusibitatearen ikuspuntutik beraien gaitasun komunikatiboak bi hizkuntza ofizialetan erreforzatzea.

Ikasleen aniztasunaren tratamendua ere curriculumean ardatz nagusi bat da. Hemen berrikuntzarik nagusia esango nuke dekretu maila ematen diogula tratamendu honi: orain arte agindu bidez egiten zena dekretu baten barruan eta curriculumaren barruan kokatzen dugu, hain zuzen ere kezkatzen gaituena ikasleen arrakasta delako, bide hori jorratu dezaten nor izan ahal izateko edo nor izateko aukera izateko.

Ebaluaketetan, ikasleek bi ikasgai gaingitu gabe pasatu daitezke kurso batetik bestera, eta beraien irakasleek hala erabakita hiru irakasgai gaingitu gabe ere pasatuko liriateke beste ikasturte batera, baina hiru gai horiek ezin izan daitezke izan Euskal Hizkuntza eta Literatura, Gaztelania eta Literatura edo Matematikak. Behin errepikatu daiteke Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, eta oinarritzko hezkuntza osoan bi aldiz gehienez.

Diagnostikoaren ebaluazioaz ere mintzatu izan naiz aurkezpenetan. Lehen Hezkuntzako bigarren zikloaren amaieran eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloa amaitzean diagnosirako ebaluazioa egingo da. Ebaluazio honek ez du izango eragin akademikorik, baina baliagarria izango zaie irakasleei, taldearen eta ikastetxearen ibilbidea eta bilakaera ikusteko, eta familiei eta ikasleei, zer-nolako progresoa edo bilakaera duten ikusteko.

Erlijioarekin ez dugu izan orain arte inongo arazorik. Beste gaietan bezalaxe, adostu ditugu helburuak curriculumean. Eskaini egin behar da, nahi duenak hartu dezake. Eta hori bai, aukeratzen ez duten ikasleei arreta eman beharko zaie, eta ematen zaien arreta hori ezin daiteke diskriminatorio izan beste ikasleentzat.

Hiritartasuna jorratzen dugu, eta hemen egingo nizuke beste aipamen bat. Hiritartasunaren eta giza eskubideen lelopean jorratzen dugu hiritartasuna. Giza eskubideetatik ateratzen den filosofia jorratu nahi dugu, hiritartasun demokratiko bat jorratu nahi dugu. Solidaritatea, justizia, bazterkeriaren gaingitzea jorratu nahi dugu. Eta hemen atentzio berezia emango da, oraindik oraindik gure gizartean zoritxarrez ematen diren gertakizun negatibo batzuk ekidin nahian balio positiboak eskainiz.

Genero-arazoa aipatu duzu dekretuan. Nik, egia esango dizut, lehendabiziko dekretua irakurri nuenean gauza bera esan nuen eta agindu nuen hori bereiztea, hori zaintzea, eta amaitzen ari den prozesu guzti honetan espero dut hori ez badugu bikain uzten behintzat hobetuko dugula.

Ikasle etorkinen inguruan, hemen ere orain arte medioetan esan dudana errepikatuko dut. Tratamendu berezia izango dute, inklusibitatearen ikuspuntutik gure sisteman integratuak izan daitezten. Talde orokorretan eskolarizatuak izango dira, eta trebakuntza profesionala eskainiko zaie helduenei. Tutoretza eta orientazioari garrantzi berezia eman diogu: kurso guztietan astero ordu bat eskainiko zaio tutoretzari –lansari batzuk ere badakizue eman dizkiegula honezkero tutoreei, eta eskatu egiten zaie tutoreei banakako txosten bat egiteko ikaslearen progresoa aztertuz eta baita ere familiari orientabideak emanez nola landu dezakeen etorkizuna ikasle horrek.

Ordutegiaren inguruan ematen diren berrikuntzarik nagusienak dira bai Lehen Hezkuntzan eta bai Bigarren Hezkuntzan ematen diren orduak, ikastetxeek modurik egokienean erabili ditzaten: hamar ordu asteko Lehen Hezkuntzako zikloetan eta hamazazpi bigarren eta hirugarren kursoan DBHn. Eta DBHko laugarren kursoan aukerazko ikasgai batzuen artean hiru ikasgai hartu behar dira, eta horrekin uste dugu indartu egiten dugula laugarren kursoak duen papera, ez dakit esan dezakegun paper propedeutikoa, batxilergoa edo lanbide-heziketako zikloak prestatzeko.

Azkenik, medioetan kezka batzuk azaldu dira irakasleen trebakuntzaren inguruan eta hainbat material prestatzen ari dira. Uztailaren 3an egin nien nik deialdi bat irakasleei Euskalduna Jauregian Bilbon, eta sei hiru irakasle baino gehiago etorri ziren curriculuma aurkezteko eta curriculumaren muina adierazteko. Berritzeguneetako zuzendariak eta aholkulariak trebatuta daude. Beraiek prestatu dute ja trebakuntzako eskaintza beraien esparruetan dauden zentroetarako. Garatu trebakuntza-



programaren barruan hiru kurtso espezifiko planteatu ditugu oinarrizko konpetentzietan, nola landu horiek gela barruan, eta hogeita bost kurtso planteatu dira konpetentziak era espezifikoan lantzeko.

Adibideak ere jorratzen ari dira eta adibide hauek ikastetxe guztietara bideratuak izango dira. Honekin, uste dugu bai irakasleek material berriak egin ditzaten eta baita ere argitaletxeek material egokiak egin ditzaten, ahalegin berezi bat egin behar dugula 2008ko aurrekontuan.

Hainbat profesional liberatu izan dugul, hainbat herri-langile, gida bat prestatzeko nola egokitu ikastetxeetako proiektu curricularra curriculum berriari. Eta gero berritzeguneak nukleo hartuta sareak antolatuko ditugu, gure ikastetxeetan konpetentziak eta gaitasunak lantzeko.

Amaitzeko, egin dugun curriculuma izan da curriculum..., hort "demokratikoa" jarri dugu, baina ez dakit hitzik egokiena den "demokratikoa". Egin duguna izan da eragile nagusi guztiekin adostu, sare publikoko eragile nagusiekin (EIGE, BIE, Sarean), eta hitzartutako ikastetxeen ordezkariekin ere bai (Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa eta Kristau Eskolen Elkarte, besteak beste). Gure nortasunetik abiatzen da. Europako erreferentzia-esparruan kokatzen da. Osatua, bateratua, integratua da. Oinarrizko hezkuntzako eta hezkuntza orokorreko konpetentziak lantzen ditu. Autonomia ematen zaie ikastetxetxei pedagogiaren eta antolakuntzaren aldetik. Familien eta udalen papera azpimarratzen du ikasleen heziketa-prozesuan. Eleaniztasuna jorratzen du, edo eleaniztasunaren zutabe sendo eta irmo bat izan nahi du. Eta inklusibitatearekin hasi baldin banaiz, hemen inklusibitatearekin amaitu behar dut laburpena.

Nik badakit kritika batzuk azaldu direla periodikoetan, baina kritika horiek esango nuke ñabardurak direla. Muinean adostasun zabal eta sakon bat lortu dugu. Eta horregatik, nik esaten dut ekimen honekin benetan adierazi dugula hemen euskal hezkuntza-sistema bat dagoela. Sare publikoko eragile nagusiekin eta sare itunduko eragile nagusiekin aritu gara eta adostu dugu curriculum-eredu bat, curriculum propio bat. Eta hemen Parlamentuan nagoela, bestetan esan dudan moduan, parte hartu duten guzti-guztiei nik uste dut benetan gure begirunea eta gure esker ona adierazi beharko geniekeela denok, jakinda curriculuma hobetuko dugula prozesuarekin, urte hauetan 1992ko Lehen Hezkuntzako curriculuma hobetu dugun moduan eta 1994ko dekretua hobetu dugun moduan. Baina hemen nik esango nuke hau dela gauzarik garrantzitsuena: lortutako adostasun-maila hezkuntza-eragile nagusiekin.

La **PRESIDENTA**: Erantzuteko txandan Basterrika andrea, zurea da hitza.

La Sra. **BASTERRIKA UNANUE**: Zuk esandako gauza batzuekin ez nator bat. Orduan, ea modu labur eta simple batean erantzuteko edo kontrajartzeko gai naizen.

Egia da, egin duzu adierazpen orokor bat curriculumaren inguruan non aurrerakuntza batzuk egongo diren, baina curriculum hori Euskal Autonomia Erkidegoko curriculum da, ez da nik esaten nizun hasiera bateko euskal curriculum. Dударik gabe Euskal Autonomia Erkidegoko curriculum % 55 LOEk ipintzen digu, hau da, Estatu espainoletik datorren dekretu batean oinarrituta dago eta betearazi behar dugu, eta hori, legeak dioen bezala, horrela da, baina beste % 45 bai zegoen gure esku, non hobetzerik bazegoen. Eta nik, hori ikusi ondoren, pixka bat gehiago sakondu dut gaia, ez dut euskal curriculum hori nabarmenduta ikusten.

Zuk esan duzu nire hitzen atzetik 2.000 eragileren, gehiengo baten ondoren etorri dela adostasuna, eta ados nago. Baina bai azpimarratu nahi nuke, eta uste dut gainera inportantzia handia daukala, 2003ko itun horren baitan sare publikoa ez zegoen, hau da, 2003an finkatu zen oinarrizko hitzarmen hori ikastolen, Sortzen-Ikasbatuaz-en eta Eskola Kristauen artekoa zen, eta gero itsatsi zen edo jarri zen lanean sare publikoa, baina lehenbiziko hitzarmenean ez zegoen eskola-sare publikoa. Eta pozten naiz ondoren itsastea, baina nik uste dut ñabardura inportantea dela. Eta egin zuten aportazioa ere, ez da nik esana, baizik eta beraiek errekonozitua, ez da euskal curriculumaren inguruan, baizik eta dekretuaren inguruan. Eta hori ere uste dut argi utzi beharra dagoela. Inori ez diogu iruzur egin behar eta inor ez digu engainatu behar, gauzak diren bezala utzi behar dira argi.



Dударик gabe curriculumak bidea zabaldu du, horretan ados nago zurekin, Tontxu, baina Madrilgo bidea. Nik uste dut LOEri oso ederki egin diogula papera edo, erdaraz esaten den bezala, "la cama", oso ondo. Primeran ikasi dugu kopiak egiten. Zergatik ez dugu gauza bakoitza bere izenez deitzen? Nik uste dut hor zintzoak izan behar dugula eta errekonozitu egin behar dugu. Dударик gabe Euskal Autonomia Erkidegoko curriculum bat edukiko dugu, baina euskal curriculum eskasa izango dugu. Nik hori besterik ez diot.

Eta zuk esan duzu ez dizudala adibiderik ipini. Baten batzuk botako dizkizut. Ni ados nago euskal kulturaren eta euskal nortasunaren ezagutzak ikasi behar ditugula, dударик gabe, eta errekonozitu behar ditugu eta landu behar dira. Baina nik, ezagutzetatik aparte, nahi dut euskaldun gisa bizi eta euskaldun sentitu, eta uste dut oraindik gauza asko ez daudela azpimarratuta. Nire eskema soil eta sinpleetatik ere esango dizut: zuk aipatu dituzun konpetentzia horietatik, dударик gabe, batzuk oinarrikoak dira, bete behar direnak eskoletan eta LOEk ipintzen ditu, zuk aipatu dituzun zortziak eta beste batzuk iparrorratz modura aipatzen dituzunak dira, baina nik uste dut euskal curriculumak, horiek ez direla iparrorratz, horiek ñabardura handiarekin ezinbesteko modura lantzen ziren. Eta zuk esan dituzu horiek eskola bakoitzaren baitan lantzeko geratuko direla. Dударик gabe, oso ondo iruditzen zait. Denok berdin jokatuko bagenu, horrek helburu zehatz eta finko bat edukiko luke, baina denok berdin jokatzen ez dugun bitartean, eta jakinda herri honetako errealitate zein den, oso adierazgarria da hori, hau da, bakoitzaren baitan uztea zer landuko dugun identitate modura. Horrek niri, egia esan, beldur asko sortzen dit.

Eta esan didazu adibiderik ez dizudala jarri. Nik hemen dut mardoska bat, igualak, baina bat oso nabarmena ipiniko dizut. Curriculumean egiten diren aipamen guztiak hiru lurraldeei buruz dira eta Euskal Herria edo Autonomia Espainiako zati modura hartzen dira. Eta agian izango gara zoritxarrez legalki oraindik horrela, baina zerbait landu nahi baldin badugu euskal curriculumaren inguruan, bultzada bat eman nahi baldin badiogu, beste ikuspuntu bat handiagoa eduki behar dugu. Eta ez da nik asmatutakoa, dekretuan ipinitako esaldiak dira: "Euskal Herri, Espainia eta Europaren nortasun historiko eta kultural zehatza osatzen duten ezaugarriak". Hau non aplikatzen da Iparraldean? Espainiako erregeak adibide modura bakarrik aipatzen dituzu. Eta askoz haratago, frankismoari buruz hitz egiten dugunean, dударик gabe, Espainiako zati bat da Euskal Herria, baina XX. mendean badaude gerra mundialak eta horretaz ez dugu ezer aipatzen, adibidez. Irekigoak izan gaitzke.

La **PRESIDENTA**: Erantzuteko txandan, sailburua.

El **CONSEJERO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN** (Campos Granados): Begira, hau guri gertatzen zaigu, eta bitxia da. Espainiako eta Frantziako ministroek ez dute justifikatu behar beraien proposamenak espainolak edo frantsesak direla, eta guk, berriz, erakutsi behar dugu eta demostratu behar dugu gurea badela euskal nortasuna zaintzen duen curriculumak.

Garbi hitz egiteko, hartu dugun Euskal Herriaren eduki edo kontzeptua Euskaltzaindiak planteatzen duen edukia da: sei lurraldeak edo zazpi lurraldeak. Eta hori ikuspuntu kultural batetik lantzen dugu, Euskaltzaindiak defendatzen duen moduan. Egoera politiko eta muga administratibo batzuk egonda, herri bat gara, eta herri hori Euskal Herria da hainbat probintzia edo lurralderekin, sei edo zazpi, nahi duzun moduan: Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa, Lapurdi eta Zuberoa.

Gainera, nik ez dut uste arrazoia duzunik % 45az eta % 55az esaten duzun horretan. Hain zuzen ere, % 55 horretan gure ikuspegia gaineratzea zilegia zaigu erabat, eta horretan saiatu gara curriculumak egiterakoan.

Erabiltzen dugun hitza, "Euskal Herria", batzuek ere kritikatu dute, baina hori Gernikako Estatutuak ahalbidetzen du, hor Euskal Herria aipatzen da. Eta, gainera, estatutu politiko berriak ere ahalbidetzen irizpide honekin jokatzea.



Berriro diot Euskal Herria herri bakarra dela. Hori bai, errealitate administratibo politikoak direnak direla esaten dugu, dudarik gabe. Bestea esatea, hori bai litzateke iruzurra, eta gainera akats serio bat, alegia, ez gaudela zatiituta, ez gaudela banatuta.

Zuk aipatzen duzu ministerioak egindako zerean oinarritu garena. Eta hori da, nire ustez, ez duzula irakurri Espainiako dekretua eta ez duzula irakurri Espainiako erkidego autonomoek egin dutena dekretu horrekin. Gehienek egin dutena izan da gutxiengoek dekretu hori hitzez hitz kopiatu eta erkidego autonomoko helburuak gaineratu. Guk, berriz, goitik behera eta era autonomo batean landu dugu gure curriculuma.

Adostasunak eta antzekotasunak daudela? Dudarik ez. Eta hori nik bi arrazoi emango nituzke bereziki. Batetik, gure sistemak ikasleak bidali ditzakeela erkidego autonomo batzuetara eta jaso ditzakeela erkidego autonomo batzuetako ikasleak, eta horien ikasketen jarraipena bermatu behar dugula nola edo hala. Kritika politikorako erabiltzen duzu MEC edo LOE, baina, klaro, esan ez duzuna da zortzi kompetentzia horiek, LOEk jartzen dituenak eta Frantziako curriculumak ere lantzen dituenak, Europa mailan erabakiak izan direla eta han adostu direla, eta orduan, normala da izatea antzekotasunak besteekin.

Adibide asko eman genitzake, ez ja, saiatu izan izen moduan, hizkuntzen trataeran. Hemen dauzkate zera batzuk: dekretuaren 3. artikuluan, dekretuaren 5. artikuluan, dekretuaren 8. artikuluan, orobat 4. atalean, eta holan jorratzen dugu euskal dimentsioa, hori bai, dimentsio zabalago baten barruan.

Esan behar dut ere euskal kulturaren eduki bezala, hain zuzen, 2004an Kulturaren Euskal Planak ebatzi zuena hartu dugula, hortik abiatu gara definitzeko zer den euskal kultura.

Egia da hau dela, hemen agindu nuen moduan, Erkidego Autonomorako curriculum ofiziala, eta hemen indarra izango duela, eta besteetan, esan dudana moduan, erreferentzia gisa sekulako materiala izango dela.

Esan duzu 2003an sare publikoa ez zegoela. Eta hori nik bereiztuko nuke, inor ez mintzeko: Sortzen ikasbatuaz zegoen alde batetik, eta bestetik, hemen esango dut legearen arabera sare publikoaren titulartasuna departamentuak duela, eta departamentua ere hori zegoela sare publiko modura. Nik uste dut oker jokatu genukeela planteatzen baldin badugu hemen zein izan zen lehena, zein izan den azkena edo zeinek oihukatu dezakeen ozenkien.

Hemen nik berriro azpimarratzen dut adostasun zabal batera iritsi garena hezkuntza-eragile nagusiekin, sare publikoak zein itundutakoak, barren-barrenean aritu direla curriculuma ateratzen eta aspaldiko partez, aspaldiko partez, sistemak dugun itunik adostuena dugula curriculuma. Ez da departamentuaren arrakasta izan, ez, sistema osoarena izan da. Lortu dugu proiektu bati begira komunean jartzea gure asmoak, gure proposamenak, bizitza ikusteko gure era ezberdinak, eta horrela abiatuta egin dugu curriculum hau.

Garatu egin behar dela curriculuma? Nola ez, nik ez daukat dudarik. Lehenago aipatzen zenizkidan Nafarroa eta Iparraldea, eta nik lehenago esan dizuedana errepikatu nahiko nuke: dokumentu hau, curriculum hau erreferentziako curriculum da Nafarroan eta Iparraldean, dudarik gabe. Hainbat gauza esaten didazu ez direla azpimarratu Nafarroari eta Iparraldeari buruz eta abar. Egia da, baina ez dira bereiztu Bizkaia, Gipuzkoa, Arabari buruz ere, horiek ere jorratu beharko ditugu, horiek ere sendotu beharko ditugu. Eta horretan eragileak ere prest daude lan egiteko.

La **PRESIDENTA**: Orain, taldeen txandari ekinez, Misto-Aralarretik Ezenarro andreak du hitza.

La Sra. **EZENARRO EGURBIDE**: Eskerrik asko Tontxu Campos sailburuari, emandako azalpenengatik. Nik zalantza pare bat bakarrik lutzatuko dizut. Iruditzen zait curriculuma aztertzeko hor



badaukagula –oraingoz behintzat esango nuke– borradorea. Ze hori da nire zalantza. Euskal curriculumaren dekretua zuen web-orrian borradore gisa zintzilikatua dagoen ez dakigu, zergatik aste honen hasieran behintzat ez zegoen buletinean publikatua. Ez dakit publikatu den. Nahi dut jakin zergatik ez dagoen publikatua, batez ere kontuan edukita, zuk gaurko azalpenean esan duzun bezala eta liburuan datorren bezala, ikasturte honetan zela inplantatzen hastekoa eta dekretua boletinean publikatu izan gabe hasi dugula ikasturtea. Orduan, nahi dut azaltzea zergatik den hori eta nola kontontzeko asmoa duzuen.

